g) Hiru mahaikide, Osasun Sailaren ordezkariak.

h) Mahaikide bi, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkariak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 8a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M. INCLÁN IRIBAR.

g) 3 vocales en representación del Departamento de Sanidad.

h) 2 vocales por la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2006.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

**2984**

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 16koa, Osasun sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako jardueren aitormen interes zientifikokoa arautzen duena.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, 32. artikuluan, ikerketa arloko jarduerak sustatzen ditu EAEko sistema sanitarioak aurrera egin dezan, eta Osasun Sailaren esku uzten du osasun-zientziak ikertu eta aztertzeko programak bultzatu eta koordinatzea.

Interes sanitarioaren aitormena, 1987ko uztailaren 1eko Aginduz sortu zen, ekimen publiko eta pribatuei —eremu honetan garatzen direnei— laguntzeko tresna egoki modura.

1987ko uztailaren 1eko Agindu hori aplikatu zenetik igarotako denborak eta pilatutako eskarmentuak beste arau bat garatzea eskatzen du, horren indarraldian agertutako arazoei irtenbide egokia emateko eta hasierako helburuak lortze aldera baliabide eraginkorra izateko. Beharrezkoa da, ildo horretatik, interes sanitarioaren aitormena izan behar duten jarduerak zehaztea. Heziketa helburu dutenak (ikastaroak) baztertu egiten dira beren-beregi. Ikastaroak eta etengabeko prestakuntzako gainerako jarduerek berariazko tratamendua dute 319/1999 Dekretuan xedatutako moduan, zeinaren bidez Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortu eta prestakuntza-mota hori kreditatzeko sistema bat arautzen baita.

**2984**

ORDEN de 16 de mayo de 2006, del Consejero de Sanidad, por la que se regula el reconocimiento de interés sanitario para actos de carácter científico que tengan lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en su artículo 32, promueve el fomento de las actividades de investigación como un elemento fundamental para el progreso del sistema sanitario de Euskadi y encomienda al Departamento de Sanidad el impulso y la coordinación de programas de investigación y estudio en ciencias de la salud.

El reconocimiento de interés sanitario se ha configurado desde su implantación mediante Orden de 1 de julio de 1987, como un instrumento valioso de apoyo a las iniciativas, tanto públicas como privadas, que puedan realizarse en esta materia.

El tiempo transcurrido y la experiencia acumulada con la aplicación de la referida Orden de 1 de julio de 1987, aconseja su sustitución por otra norma que dé adecuada solución a los problemas planteados durante su vigencia y que contribuya de manera más eficaz a la consecución de los objetivos para los que se dictó. Así, se aprecia la necesidad de delimitar los actos que van a ser susceptibles de reconocimiento de interés sanitario, excluyendo expresamente los que tengan un objeto formativo, como son los cursos. Los cursos y el resto de actividades de formación continuada son objeto de tratamiento específico, de acuerdo con el Decreto 319/1999 por el que se crea el Consejo Vasco de Formación Continuada y se regula un sistema para su acreditación.

Interes sanitarioa aitortzearekin laguntza eskaini nahi zaie osasunaren zientzia eta tekniken arloetan ikerketa egintzaren ondorioa diren jarduerei, zeinek emaitza eraberritzaileak eman beharko bailituzkete, aldi berean aplikatzeko eta hedatzeko egokiak izango liratekeenak.

Agindu honen helburua da, halaber, aitormena eman eta gero jarraipena egitea, bere deuseztapena aurreikusiz, non eta egintza ez den, bere ezaugarririk behinenei dagokienez, eskabidean adierazitako eran garatzen.

Esandakoaren haritik eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikuluan aurreikusitako eskumenen arabera,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua eta eremua.

1.– Osasun Sailak aitortu egin dezake Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako zenbait egintza zientifikoren (konferentziak, kongresuak, bilerak, jardunaldiak eta sinposiumak) interes sanitarioa, baldin eta euren helburua osasunarekin lotura duten zientzia eta teknikak sustatu, aplikatu eta hedatzea bada.

2.– Prestakuntza helburu nagusi duten ikastaroak eta jarduerak aitormen honetatik kanpo geldituko dira.

*2. artikulua.–* Eskabidea nork egin dezakeen eta noiz eta non aurkeztu behar den.

1.– Honako hauek eska dezakete interes sanitarioaren aitormena: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoko zerbitzu sanitarioan diharduten erakundeek eta, baita ere, nortasun juridiko propioa izan eta, legez eratuta daudela egiaztatu ostean, izaera publiko edo pribatua duten entitateak.

2.– Jarduera burutu baino behintzat 60 egun baliodun lehenago aurkeztu beharko dira eskabideak.

3.– Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara bidaliko dira eskabideak. Helbidea: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

4.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

*3. artikulua.–* Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Agindu honetako 1. eta 2. eranskinetan argitaratzen diren inprimakien bidez formalizatuko dira eskabideak, aintzat hartuz Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetan diharduten erakundeak diren edo ez.

Se trata, en definitiva, de apoyar con la figura del reconocimiento de interés sanitario a aquellas actividades que son consecuencia de una acción investigadora en las ciencias y técnicas de la salud, y de las cuales quepa presumir la obtención de resultados y conclusiones novedosas, que sean adecuadas para su aplicación y difusión.

Asimismo, la orden incide en la acción de seguimiento del uso del reconocimiento una vez concedido, previendo su retirada en los supuestos de que el acto no se desarrolle, en sus características fundamentales, de conformidad con lo manifestado en la solicitud.

Por todo lo expuesto y en virtud de las competencias previstas en el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Ámbito y objeto.

1.– El Departamento de Sanidad podrá reconocer el interés sanitario de actos científicos como conferencias, congresos, reuniones, jornadas y simposiums, que tengan lugar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco y cuyo fin sea la promoción, aplicación y difusión de las ciencias y técnicas relacionadas con la salud.

2.– Quedan excluidos del alcance de este reconocimiento los cursos y otras actividades cuyo fin principal sea el formativo.

*Artículo 2.–* Solicitantes, plazo y lugar de presentación.

1.– Podrán solicitar el reconocimiento de interés sanitario las organizaciones de servicios sanitarios del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como cualquier entidad de naturaleza pública o privada, con personalidad jurídica propia y que acredite estar legalmente constituida.

2.– Las solicitudes deberán presentarse al menos 60 días hábiles antes de la celebración del evento.

3.– Las solicitudes se dirigirán y remitirán a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, (c/ Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

4.– Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 3.–* Solicitud y documentación a presentar.

1.– Las solicitudes se formalizarán en los impresos que se publican en los anexos 1 y 2 de esta orden, según se trate de organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud o entidades no pertenecientes a dicho ente público, respectivamente.

2.– Eskabidearekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

a) Programa zientifikoa, zeinak jasoko baititu helburuen deskribapena, batzorde zientifikoaren osaera, garatuko diren txosten edo komunikazioen laburpenak, txostengile parte hartzaileak eta egintzan zein hizkuntza edo hizkuntzak erabiliko diren.

b) Aurrekontu ekonomikoa, aditzera emanez zenbatek parte hartuko duten, kuotak eta, hala behar denean, esleitutako edo eskatutako gainerako finantza-bideak. Eskatzaileak, finantzaketa pribatua bada, Interesen Gatazka Deklarazioa egin beharko du III. eranskineko agirian azaltzen den moduan.

3.– Osakidetza-Osasun Euskal Zerbitzuan txertatutako entitateek, aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Zuzendaritza Batzordearen edo eraentza organoaren osaera.

b) Editatutako argitalpenak.

c) Azken hiru urteotan antolatutako egintza zientifikoak eta/edo interes sanitariokoak.

4.– Osasun Plangintza eta Ordenamenduko Zuzendaritzak hartu beharreko ebazpenerako bidezkotzat jotzen diren argibide osagarriak aurkezteko eska diezaioke erakunde eskatzaileari.

***4. artikulua.***– Balorazioa eta ebazpena.

1.– Osasun Sailak, egokitzat jotzen dituen txostenak aurkeztu eta aholkuak eman ondoren, proposatutako jardueraren izaera zientifikoa eta interes sanitarioa balora ditzake, kontuan hartuz lur-eremua eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun zientzien garapenari egin dakiokeen ekarpena.

2.– Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzako titularrari dagokio eskatutako aitormen interes sanitariokoa emateaz edo, hala behar izanez gero, ukatzeaz ebazpena hartzea.

3.– Honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko da aitormena:

– Egintzaren izaera zientifikoa.

– Indarreko Osasun Planaren helburuekin lotura duen interes zientifikoa.

– Parte hartzaile kopurua eta mota.

– Erakunde antolatzailearen kaudimena.

– Euskararen erabilera.

4.– Eskabidea lau hilabetean ebatziko da, goitik jota. Epe hori igarota, oraindik ere ebazpenik ez badago, interesdunek beren eskabidea aintzat hartu dela ulertuko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.– A la solicitud deberá adjuntarse la siguiente documentación:

a) Programa científico, que incluya la descripción de objetivos, composición del comité científico, síntesis de las ponencias o comunicaciones a desarrollar, ponentes intervinientes y lengua o lenguas en las que se desarrollará el acto.

b) Presupuesto económico, con indicación del número previsto de asistentes, cuotas y, en su caso, otras fuentes de financiación, concedidas o solicitadas. En caso de financiación privada el solicitante deberá realizar una Declaración de Conflicto de Intereses en los términos que figuran en el documento del anexo III.

3.– En el caso de entidades no integradas en el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, además de la indicada en el párrafo anterior, deberán presentar documentación relativa a:

a) Composición de la Junta Directiva u órgano rector.

b) Publicaciones que edita.

c) Actos científicos y/o de interés sanitario organizados en los últimos tres años.

4.– La Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria podrá requerir de la entidad solicitante la presentación de la información complementaria que juzgue pertinente para la resolución a adoptar.

***Artículo 4.***– Valoración y resolución.

1.– El Departamento de Sanidad, previos los informes y asesoramiento que estime conveniente, valorará el carácter científico y el interés sanitario de la actividad propuesta, teniendo en consideración su alcance geográfico y su aportación al desarrollo de las ciencias de la salud en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Corresponde a la persona titular de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria resolver sobre la concesión o, en su caso, denegación del reconocimiento de interés sanitario solicitado.

3.– El reconocimiento se evaluará atendiendo a los siguientes criterios:

– Carácter científico del acto.

– Interés sanitario en relación con los objetivos del Plan de Salud en vigor.

– Número y tipo de participantes.

– Solvencia de la entidad organizadora.

– Utilización del euskera.

4.– La solicitud será resuelta en el plazo máximo de cuatro meses. En caso de no ser resuelta en dicho plazo, los interesados podrán entender estimada su solicitud a los efectos de lo establecido en el artículo 43 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*5. artikulua.*– Konpromisoak eta ez-betetzeak.

1.– Interes sanitarioaren aitormenak dakarrena da erakunde antolatzaileak konpromiso hauek onartu behar dituela:

a) Egintzaren ezaugarririk behinenak interes sanitarioaren aitormen eskabidean bidalitako informazioari egokituko zaizkio. Aldaketarik balego ildo horretan, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari jakinaraziko zaio eta, ondorioz, ezingo da erabili esleitutako aitormena. Sailak onartu eta gero berriro erabili ahal izango da aitormena.

b) Entitate antolatzaileak behin betiko programa eta egintzaren emaitzak jasotzen dituen memoria bidaliko dizkio Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari, amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera 30 eguneko epean.

2.– Entitate antolatzaileak aipatu obligaziook ez betetzeak esleitutako aitormena galtzea ekar dezake. Aitormena kentzeari buruzko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

*6. artikulua.*– Onurak.

Interes sanitarioaren aitormenak onura hauek ekarriko ditu:

a) Jardueraren agiri guztietan erabiltzea titulu hori. Jarraibideak:

– Formula: «Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak esleitutako interes sanitarioaren aitormena». Kalifikazio hori jasoko duen egintzaren izenaren segidan jarri beharko da. Bere tamaina ezingo da izan izenean erabilitako karaktere tipologikoena baino handiagoa.

– Esleipen agiri sinatua jaso artean ezingo da aitormenaren publizitaterik egin.

– Errepikatzen diren jarduerak izanez gero, eskatutako ediziorako baino ez du balioko aitormenak.

a) Aitormen mota hauentzat legez ezarritako onura fiskalez eta exentzioez baliatzea.

b) Osasun Sailetik honek emandako laguntza teknikoa eta aholkularitza jasotzea.

c) Osasun Saileko web orrian sartzea, hain zuzen ere, aitormena esleitu zaien egintzen zerrendan.

*7. artikulua.*– Gainerako arau aplikagarriak.

Aurreko artikuluetan ezarritakoa kontuan izanik, egintza zientifiko sanitario guztiei aplikatuko zaie publizitatearen eta sustapen mediko-farmazeutikoaren arloetan indarrean dagoen araudia.

*Artículo 5.*– Compromisos e incumplimiento.

1.– El reconocimiento de interés sanitario implica para la entidad organizadora la asunción de los siguientes compromisos:

a) El acto deberá ajustarse en sus características fundamentales a la información enviada en la solicitud de reconocimiento de interés sanitario. Cualquier variación en tal sentido deberá comunicarla a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, absteniéndose en consecuencia de utilizar el reconocimiento concedido. Si se recibe la aprobación del Departamento podrá volver a utilizar el reconocimiento.

b) La entidad organizadora remitirá a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria el Programa definitivo y una Memoria con las conclusiones del acto, dentro de los 30 días siguientes a su finalización.

2.– El incumplimiento de dichas obligaciones a cargo de la entidad organizadora podrá comportar la pérdida del reconocimiento concedido. La resolución de retirada del reconocimiento será objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 6.*– Beneficios.

El reconocimiento de interés sanitario comportará los beneficios siguientes:

a) Usar este título en toda clase de documentación, de la actividad. Para ello se atendrá a las siguientes pautas:

– La fórmula empleada debe ser: «Reconocido de interés sanitario por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco». Habrá de situarse a continuación de la denominación del acto al que sea otorgada dicha calificación y su tamaño no podrá ser superior al de los caracteres tipográficos usados en la denominación.

– No se podrá hacer publicidad del reconocimiento hasta que no se reciba el documento firmado de concesión.

– En caso de actividades repetidas el reconocimiento tendrá validez sólo para la edición solicitada.

a) Disfrutar de los beneficios fiscales y exenciones legalmente establecidos para este tipo de reconocimientos.

b) Recibir del Departamento de Sanidad, la ayuda técnica y el asesoramiento que ésta pudiere facilitar.

c) Ser incluido en la página web del Departamento de Sanidad, en la relación de actos a los que se les ha concedido el reconocimiento.

*Artículo 7.*– Otra normativa aplicable.

Sin perjuicio de lo establecido en los artículos precedentes, a todo acto científico-sanitario le será de aplicación la normativa vigente en materia de publicidad y promoción médico-farmacéutica.

*8. artikulua.*– Errekurtsoak.

Espedientearen ebazpenak ez du amaitzen administrazioaren bidea, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztua ahal izango zaio Osasun sailburuordeari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe uzten da Osasun eta Kontsumo Sailaren 1987ko uztailaren 1eko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu eta interes zientifikokoak diren egintzen interes sanitarioaren aitormena arautzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 16a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M. INCLÁN IRIBAR.

*Artículo 8.*– Recursos.

La resolución del expediente no agota la vía administrativa y se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 1 de julio de 1987, del Departamento de Sanidad y Consumo, por la que se regula el reconocimiento de interés sanitario para actos de carácter científico que tengan lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de mayo de 2006.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

1. ERANSKINA

| INTERES SANITARIOAREN AITORMEN ESKABIDEA<br>OSAKIDETZA-OSASUN EUSKAL ZERBITZUKO ERAKUNDEEK EAE-N ANTOLATUTAKO<br>IZAERA ZIENTIFIKOKO EGINTZETARAKO | |
|---|---|
| ESKATZAILEA | |
| Zerbitzu Erakundearen izena:<br>Unitate edo zerbitzu antolatzailea:<br>Harreman datuak (telefonoa, faxa, e-maila): | |
| EGINTZA ZIENTIFIKOA | |
| Izena:<br>Jarduera mota:<br>Non izango den:. | Data: / / |
| ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK<br>(X batez markatu) | |
| ☐ Egintzaren egitarau zientifikoa.<br>☐ Aurrekontua<br>☐ Interes gatazkaren deklarazioa (hala gertatuz gero) | |
| UNITATE EDO ZERBITZU ANTOLATZAILEAREN ARDURADUNA | |
| Izena eta bi abizen<br>Kargua: | Sinatuta: |
| ERAKUNDEAREN ZUZENDARI KUDEATZAILEA EDO ORDEZKARIA | |
| Izena eta bi abizen<br>Kargua: | Sinatuta: |

OSASUN PLANGINTZA ETA ORDENAMENDUKO ZUZENDARIA

2. ERANSKINA

INTERES SANITARIOAREN AITORMEN ESKABIDEA
OSAKIDETZA-OSASUN EUSKAL ZERBITZUAK EAE-N ANTOLATU
ETA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKOAK EZ DIREN ERAKUNDEEK
ANTOLATUTAKO EGINTZA ZIENTIFIKOETARAKO

ENTITATE ESKATZAILEA

Entitatearen izena

Helbide soziala: Eratze data:

Kide kopurua: Kuoten zenbatekoa, urteko:

Elkarteen Erregistroko zenbakia:

Harreman datuak (telefonoa, faxa, e-maila):

EGINTZA ZIENTIFIKOA

Izena:

Jarduera mota:

Non izango den:. Data: / /

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK
(X batez markatu)

☐ Entitate eskatzailearen Zuzendaritza Batzordearen osaera.

☐ Editatzen dituen argitalpenen zerrenda.

☐ Azken hiru urteotan antolatutako egintza zientifikoak eta/edo interes sanitariokoak.

☐ Egintzaren egitarau zientifikoa.

☐ Aurrekontua

☐ Interes gatazkaren deklarazioa (hala gertatuz gero)

ENTITATEAREN ORDEZKARIA

Izena eta bi abizen Kargua:

Lekua: Data: Sinatuta:

OSASUN PLANGINTZA ETA ORDENAMENDUKO ZUZENDARIA

# 3. ERANSKINA

## INTERES SANITARIOKO EGINTZAK, BABESLE PRIBATUEK DIRUZ LAGUNDUTAKOAK

## INTERES GATAZKAREN DEKLARAZIOA

Jauna/Andrea (egintzaren arduradunaren izena)

(Jardueraren izenburua) izenburua duen egintzaren arduraduna, (entitate antolatzailearen izena) antolatuta, (entitate babeslearen izena) babesarekin.

DEKLARATZEN DU

Interes sanitarioko egintza honen plangintza, kalitate eta integritate zientifikoaren ardura osoa duela; eta ez duela ezelango finantzaketarik jaso, baldintza hauetan:

– Zenbait txostengile sartzeko.

– Zenbait eduki sartzeko.

– Publizitatea sartzeko.

– Logotipo komertzialak erabiltzeko.

KONPROMISOA:

– Txostengileek babeslearekin duten harremanaren berri eman eta programaren bidez argitaratzekoa.

– Babesle komertzialaren izena, produktu jakin bat aipatu gabe, sustapen materialetan eta programetan jasota uztekoa; sekula ere ez, ordea, material zientifikoetan.

– Egintza amaitu ostean, Osasun Sailari parte hartzaileei eskuratutako materialaren kopia bidaltzekoa.

–n -ko -ren -an

Sinatuta:

*ANEXO 1*

| *SOLICITUD DE RECONOCIMIENTO DE INTERÉS SANITARIO PARA ACTOS DE CARÁCTER CIENTÍFICO ORGANIZADOS EN LA CAPV POR ORGANIZACIONES DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD* | |
|---|---|
| *SOLICITANTE* | |
| *Nombre de la Organización de Servicios:*<br>*Unidad o Servicio organizador:*<br>*Datos de contacto (teléfono, fax, e-mail):* | |
| *ACTO CIENTÍFICO* | |
| *Denominación:*<br>*Tipo de actividad:*<br>*Lugar de celebración:* | *Fecha: / /* |
| *DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN A ESTA SOLICITUD*<br>*(marcar con una X)* | |
| ☐ *Programa científico del acto.*<br>☐ *Presupuesto económico*<br>☐ *Declaración de conflicto de intereses (en su caso)* | |
| *RESPONSABLE DE LA UNIDAD O SERVICIO ORGANIZADOR* | |
| *Nombre y dos apellidos:*<br>*Cargo:* | *Fdo.:* |
| *DIRECTOR(A) GERENTE O REPRESENTANTE DE LA ORGANIZACIÓN* | |
| *Nombre y dos apellidos:*<br>*Cargo:* | *Fdo.:* |

*SRA. DIRECTORA DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA*

*ANEXO 2*

| *SOLICITUD DE RECONOCIMIENTO DE INTERÉS SANITARIO PARA ACTOS DE CARÁCTER CIENTÍFICO ORGANIZADOS EN LA CAPV POR ENTIDADES NO PERTENECIENTES A OSAKIDETZA/SERVICIO VASCO DE SALUD* | |
|---|---|
| *ENTIDAD SOLICITANTE* | |
| *Nombre de la entidad:* | |
| *Domicilio social:* | *Fecha de constitución:* |
| *Número de miembros:* | *Importe anual de las cuotas:* |
| *N.º del Registro de Asociaciones:* | |
| *Datos de contacto (teléfono, fax, e-mail):* | |
| *ACTO CIENTÍFICO* | |
| *Denominación:* | |
| *Tipo de actividad:* | |
| *Lugar de celebración* | *Fecha: / /* |
| *DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN A ESTA SOLICITUD ((marcar con una X)* | |
| ☐ *Composición de la Junta Directiva de la entidad solicitante.* | |
| ☐ *Relación de publicaciones que edita.* | |
| ☐ *Relación de actos científicos y/o de interés sanitario organizados en los últimos tres años.* | |
| ☐ *Programa científico del acto.* | |
| ☐ *Presupuesto económico.* | |
| ☐ *Declaración de conflicto de intereses (en su caso).* | |
| *REPRESENTANTE DE LA ENTIDAD* | |
| *Nombre y dos apellidos:* | *Cargo:* |
| *Lugar:* *Fecha:* | *Fdo.:* |

*SRA. DIRECTORA DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA*

*ANEXO 3*

*ACTOS DE INTERÉS SANITARIO FINANCIADOS POR PATROCINADORES PRIVADOS*

*DECLARACIÓN DE CONFLICTO DE INTERESES*

*D/D.ª (nombre de la persona responsable del acto)*

*Responsable del acto que lleva por título (título de la actividad) organizada por (nombre de la entidad organizadora) con el patrocinio de (nombre de la entidad patrocinadora)*

*DECLARA*

*Que es totalmente responsable de la planificación, calidad e integridad científica de este acto de interés sanitario, y que no se ha recibido ningún tipo de financiación condicionada a:*

– *La inclusión de determinados ponentes.*

– *La inclusión de determinados contenidos.*

– *La inclusión de publicidad.*

– *La utilización de logotipos comerciales.*

*SE COMPROMETE A:*

– *Dar a conocer la existencia de cualquier tipo de relación de los ponentes con el patrocinador y hacerla pública en el programa.*

– *Que el nombre del patrocinador comercial, sin hacer mención a ningún producto concreto, pueda constar en los materiales promocionales y en los programas, pero nunca en los materiales científicos.*

– *Enviar al Departamento de Sanidad, una vez finalizado el acto, una copia del del material facilitado a los asistentes.*

*En a de de*

*Fdo:*